

**GIDA: PUBLIZITATE SANITARIOA****(550/1991 Dekretua, urriaren 15ekoa)****1. ZER DA PUBLIZITATE SANITARIOA?**

Zuzenean edo zeharka, ondoren azaltzen diren materialak, produktuak, ondasunak, jarduerak edo zerbitzuak kontratatzea sustatzeko egiten diren komunikazioak: material edo produktu sanitarioak, arau tekniko-sanitarioak bete behar dituzten beste material edo produktu batzuk, bai eta pertsonen osasunean arriskuak sor ditzaketen produktuak, ondasunak, jarduerak edo zerbitzuak edo gizakion osasunean edozein ondorio mota – positiboa zein negatiboa– eragiten dituztenak ere.

**2. ZEIN EREMUTAN ZABALTZEN DA?**

Hona publizitate sanitarioa egitea dutenak:

- Ospitaletako eta ospitalez kanpoko osasun-zentroak.
- Bainuetxeak.
- Anlisi klinikoetako laborategiak eta farmazia-bulegoetako analisi klinikoetako atalak.
- Farmazia-bulegoak eta botikinak.
- Anbulantzia-zerbitzuak eta osasun-garraioak.
- Produktu farmazeutiko eta zoosanitarioen biltegiak eta banatzaileak.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta egoitzako gizarte-zerbitzuak (adinekoei zein ezintasunak dituztenei zuzenduak).
- Gaixotasun-aseguru libreen erakundeak.
- Diagnostikoak egiten dituzten enpresak (txekeoak, diagnostiko hematologikoak, haurdunaldikoak eta abar).
- Optikak eta farmazia-bulegoetako optika-atalak.
- Medikuntzako edo paramedikuntzako tratamenduak, fisikoak edo psikikoak egiten dituzten enpresak.
- Edertasun-institutuak, beltzarantzeko zentroak, saunak eta masaje-zentroak.

- Tratamendu kapilarretako zentroak.
- Ikastetxeak edo medikuntzako zein paramedikuntzako teknikak zabaltzeko zentroak.
- Ortopedia-bulegoak eta farmazia-bulegoetako ortopedia-atalak.
- Podologia-zentroak.
- Audioprosesien bulegoak eta hortzetako prosesien laborategiak.
- Jarduera sanitarioak egiten dituzten zerbitzu prebentiboek zentroak eta unitateak.
- Osasun-arloko profesional hauek:
  - Medikuak.
  - Odontoestomatologoak.
  - Fisioterapeutak.
  - Psikologo klinikoak.
  - Osasun-laguntzaile teknikoak (OLT). Erizaintzako unibertsitate-diplomadunak (EUD).
  - Botikariak.
  - Beste batzuk (zehaztu gabe).

### 3. NOLA EGIN BEHAR DA?

Publizitate sanitarioa egin nahi duten pertsonak edo entitateek horretarako behar den baimen administratiboa eskatu behar dute aurretik, eta **galdera-sorta** espezifikoa bete. Galdera-sorta horretan, datu hauek jaso behar dituzte:

- I. **Zentroaren datuak:** zentro jakin bati buruzko informazioa (zentroaren izena, eskatzailearen izen-abizenak, NAN/ZIF, helbidea, telefonoa, eta abar).
- II. **Aitortzen duten jarduera:** jarduera bat hautatu beharko dute gorago aipatutako jarduera-zerrendatik. Aitortu nahi den jarduera ez bada zerrenda horretan agertzen, "Beste batzuk" aukera hautatu eta zehaztu behar da zer jarduera egiten duen dena delako enpresak edo profesionalak.
- III. **Zentroko asistentzia-arduradunaren datuak: zentro sanitarioa** bada, arduraduna **profesional sanitario** bat izango da beti, eta haren datu pertsonalak

eta profesionalak jaso beharko dira (izen-abizenak, titulazio akademiko **ofiziala**, eta, hala badagokio, elkargokide-zenbakia, eta abar); zentro ez bada sanitarioa, zentroko gerenteari buruzko datuak eman behar dira.

IV. **Zentroan egiten diren jarduerak zehaztuta:** zehatz-zehatz bete daiteke (zerbait espezifikoa badago) edo, bestela, esapide hau jarri: "... berezkoak dituenak..." (jarduera bera egiten duten zentro guztietan egiten badira).

V. **Mezu publizitarioaren testu osoa:** galdera-sortan bertan bete daiteke, edo aparteko orrialde batean erantsi.

Agentzia Publizitario baten bidez egiteko aukera ere badago.

Horixe da zatirik inportanteena; **Publizitate Sanitariao Kontrolatzeko Batzordearen** zeregin nagusia baita publizitate sanitarioaren eskaerak berrikustea, proposatutako testua **egiazkotasun-printzipioa** bete dezan. Horretarako, egokitzat jotzen dituen aldaketak proposatu ditzake, bai eta aldaketok atzera bota ere.

VI. **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Publizitate Sanitariao Kontrolatzeko Batzordeak ondoren ebazteko beharrezkoa dena. Dokumentazio hori epe barruan entregatu ezean, **espedientea artxibatu egingo da.**

- Publizitatean jasoko diren titulazioen kopia. **Zentro sanitarioen** kasuan **SOILIK**, nahitaezko baimena lortzeko jada aurkeztuta dituzten agirien artean ez zeuden gainerako titulazioena.
- Tasak ordaindu izanaren agiria: ordaindu beharreko kopurua desberdina izango da, baimena lortzeko den ala berritzeko den: **baimena** lortzeko bada, tasaren % 100; **berritzeko** bada, berriz, tasaren % 50.
- Argitaratu beharreko iragarkiaren testu osoa: iragarki guztietan, mezu publizitarioaz gain, asistentzia-arduradunaren titulazioa ere agertu beharko du,

zentroa sanitarioa bada; ez bada sanitarioa, adierazi egin beharko da, hau jarrita: "ZENTRO EZ SANITARIOA". Gainera, ondo idatzita egon behar du, gaizki ulertzerik ez sortzeko, egiazkotasun-printzipioa eta lehia leialaren printzipioa betez.

**\*BAIMENA LORTZEKO:**

- Baimena **aurreneko aldiz** eskatzen denean.
  
- Aurretiko baimena izan arren, **5 urte** baino gehiago igaro badira berritzeari ekin behar zitzaionetik (komeni da baimena iraungi baino hilabete batzuk lehenago harremanetan jartzea, baimena berritzeko tramiteak egiteko).

**\*BAIMENA BERRITZEKO:**

- Baimena berritzea **epe barruan** eskatzen denean.
  
- Nahiz eta 5 urte igaro ez diren, **testuaren funtsezko aldaketaren** bat dagoenean.

Zentroaren **baimen sanitarioa** da (EZ NAHASTU UDAL LIZENTZIAREKIN).

Hona baimena eskatzeko lekuak:

- Osasun Saila (Planifikazio, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza)- Eusko Jaurlaritza- Donostia kalea 1, 010010 Vitoria-Gasteiz, edo
  
- lurralde-ordezkaritzetan:
  
- **ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA**  
**OLAGIBEL 38 (01004 VITORIA-GASTEIZ)** **Tel.: 945 01 71 00**

- **BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA**  
REKALDE ZUMARDIA 39 A (48008 BILBAO) Tel.: 944 03 17 00
- **GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA**  
ANTSO JAKITUNA 35 (20010 DONOSTIA) Tel.: 943 02 30 00

- Posta elektronikoaren bidez bidali behar da, helbide honetara:  
[osasun-publizitatea@euskadi.eus](mailto:osasun-publizitatea@euskadi.eus)

VII. **Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa:** eskabidearekin batera aurkezten den dokumentazioaren zerrenda egin behar da.

#### 4. PUBLIZITATE SANITARIOAREN PROZEDURAREN FASEAK

- I. **Eskabideak jaso:** galdera-sorta bete ondoren, helbide honetara bidali behar da, hari atxikitako dokumentazioarekin batera:

Osasun Saila  
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza  
Publizitate Sanitarioa  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

Proposamenak posta elektronikoz, posta arruntez edo faxez igorri behar dira ondorengo helbidera (ahal dela, posta elektronikoz):

[osasun-publizitatea@euskadi.eus](mailto:osasun-publizitatea@euskadi.eus)

- II. **Eskabidea egiaztatu:** behin eskabideak jaso ondoren, egiaztatuko da ea galdera-sorta ondo beteta dagoen, eta, batez ere, eskatutako dokumentazio guztia entregatu den ala ez.
- III. **Testu publizitarioak berrikusi:** gutxi gorabehera, hilabete eta erdirik behin batzartuko da **Publizitate Sanitarioa Kontrolatzeko Batzordea**. Eusko

Jaurlearitzako, kontsumitzaileen elkarteetako eta kidego profesionaletako kideek osatzen dute batzorde hori.

Aurkeztutako testuen arabera, batzordeak honela joko du:

- **Testuak onartuko ditu, dauden daudenean.**
- **Testuak onartuko ditu, behin aldaketa batzuk egin ondoren.**
- **Testuak ez ditu onartuko.**

IV. **Publizitateari buruzko ebazpenak:** zenbait gauza hartuko dira kontuan (Batzordean erabakitakoa edo eskatzaileak **dokumentazio osoa epe barruan aurkeztu duen ala ez**). Honakoren bat ebatziko da:

- **Publizitatea onartzea (baimena 5 urtetarako).**
- **Publizitatea ukatzea.**
- **Espedientea artxibatzea.**

V. **Errekurtsoak:** ebazpen horien aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, ebazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, Osasuneko sailburuordearen edo Osasun Saileko Planifikazio, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren aurrean.

## 5.– ARAU OROKORRAK

1. Baimendutako publizitate sanitarioak kasuan kasuko ebazpenean jasotako testua zabalduko du, **oso-osorik eta bakar-bakarrik**.
2. Argitaratzen diren iragarki **guztietan**, Publizitate Sanitarioaren Erregistroko zenbakia agertu beharko da, bai eta zentroan egiten den asistentzia-jardueraren arduradunen izenak eta tituluak ere.
3. Debekatuta daude **Egiatzotasunaren eta Lehia Leialaren printzipioak** betetzen ez dituzten esapideak.

4. Kontratutako **publierreportaje**, koadernotxo eta liburuxka publizitario, eta gehigarri edo saio komertzial sanitarioak ere publizitate sanitariokotzat jotzen dira, eta, horrenbestez, urriaren 15eko *550/91 Dekretuak* arautzen ditu horiek guztiak.
  
5. Aurreko edozein atal betetzen ez bada, dagokion **zehapen-espedientea** zabalduko da, *Publizitate Sanitarioaren urriaren 15eko 550/1991 Dekretuan* jasotzen dena betez.

